2006-I-20
Número **174** zenbakia

ELA

# astekaria

## EDITORIALA

### Debeku kezkagarria

Entzutegi Nazionalak BECerako Batasunak deitutako ekitaldia (eta, bide batez, talde politiko honen jarduera bera) bertan behera utzi izanak, gauzak benetan non dauden erakusten digu: alegia, kontraesanez betetako hitz eta keinuetatik haratago, "zuzenbide estatuaren" egiturek bere logika aplikatzen segitzen dutela, itun antiterroristarena eta alderdien legearena; hots, azken finean, nazionalismo espainiar autoritarioarena.

BECeko ekitaldiaren debekua atal berri bat da esparru politiko eta sozial zabalaren eskubideen ukapenean. Itun antiterrorista sasoiko agertzen zaigu eta estatuaren armazoian sakon barneratuta dagoela erakusten digu. Erakutsi ere, bai Euskal Herritik gatazkaren irtenbide bila dabiltzanei, baita ere Espainiako gobernuari eta, bereziki, bere presidenteari. Inoiz baino argiago azaltzen da, hortaz, euskal gatazkaren muinari soluzioa eman ahal izateko, estatua aldaketa sakonen premian dagoela. Hau da, ELAren irraileko agiriak aipatzen zuen haustura demokratikoaren premian.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, horrelako erasoen xedea estatuaren nagusitasuna eta balizko irtenbidearen mugak argi uztea dela. Hortik, gauzen sekretuan ez gauden herritarroi gatazkaren irtenbidearekiko sortarazten dizkiguten kezka eta zalantzak, denbora luzatu ahala larritzen joan daitezkeenak. Balizko elkarrizketa edo harremanetan dabiltzanek gauzak serioski eta ganoraz egingo al dituzte, gutxienez!

Nolanahi, eraso antidemokratikoek erantzuna eskatzen dute; hortaz, ELA prest izan da debekuari erantzuteko antolatu diren ekimenetan esku hartzeko. Eta izango da ekimen berrietan ere.



## ELAk negoziazio kolektiboari buruzko eskualde mailako jardunaldiak antolatu ditu otsailaren 3tik 10era bitartean

# "AKORDIO ONAK EZ DATOZ ZERUTIK"

**ELAk negoziazio kolektiboari buruzko jardunaldiak antolatuko ditu otsailaren 3tik 10era bitartean. Eskualde mailako jardunaldi hauen leloa "Akordio onak ez dira zerutik erortzen" izango da. ELAren negoziazio kolektiboko arduradun Adolfo Muñozen ustez, jardunaldi hauek garrantzia handikoak dira. "Patronalak oso garbi esan du negoziazio kolektiboan zertaz hitz egin daitekeen, eta zertaz ezin daitekeen hitz egin. Eta, hitz egin ezin daitezkeen gaien artean egun lan merkatuan dauden lan baldintza txarrak dira. Horri aurre egiteko langileok dugun tresna negoziazio kolektiboa da. Beraz, negoziazio kolektiboa ezin dugu inprobisatu, oso ondo prestatu behar dugu".**




Negoziazio kolektiboa era egokian prestatzearen garrantzia azpimarratzen du Muñozek. "Negoziazio kolektiboa prestatzea bertan zein eduki landuko diren aldez aurretik hitz egitea da. Horrek ez du zerikusirik aldarrikapenen plataforma batekin. Plataforma ez bada ongi lantzen, ez du deus ere balio, Errege Magoei karta bat idaztea bezala da. Edukiak ondo landu behar dira. Eta, edukin horien artean, prekarietateari lehentasuna eman behar zaio. Patronalaren jarreraren ondorioz, gaur egun negoziazio kolektiboa sektore eta enpresa askotan blokeatuta dago. Azken finean, horrelako egoera baten aurrean jendea nola dinamizatu behar dugun ari gara lantzen".

*"ELA celebrará entre el 3 y el 10 de febrero unas jornadas en todas las comarcas sobre negociación colectiva. El lema de estas jornadas será 'Un buen convenio no cae del cielo'"*

**(Informazio gehiago, 2. orrialdean)**

## ELA rechaza la prohibición del acto del BEC

# REUNIONES CON DIVERSOS GRUPOS POLÍTICOS

Representantes del Comité Ejecutivo de ELA han mantenido a lo largo de los últimos días reuniones con PNV, Aralar y Batasuna para analizar la situación política, así como, en el caso de Batasuna, tratar de la prohibición del acto del BEC, acordada por la Audiencia Nacional.

ELA ha mostrado su rechazo frontal de esta prohibición, que considera un verdadero atropello democrático, así como la disposición a participar en iniciativas plurales que tengan por objeto reivindicar el reconocimiento de derechos como los de reunión y participación política.

En opinión de ELA, hechos como la prohibición del acto del BEC revelan la permanencia del pacto antiterrorista y, lo que es aún más grave, del nacionalismo español autoritario que le dio origen y que se encuentra profundamente instalado en las estructuras y aparatos del estado. Además, añaden nuevas dificultades para una salida negociada el conflicto vasco.



**28 DE ENERO. 17:00, ZALLA**

**POR EL EMPLEO EN LAS ENCARTACIONES**

## Egunean Al día




ELAren negoziazio kolektiboko arduradun Adolfo Muñozek, 2006. urteko negoziazio kolektiboaren gakoak aztertzen ditu:

### ● Negoziazio kolektiboa nola prestatu

"Negoziazio kolektiboa lantegietan era antolatuan landu behar da. Sindikatua patronalak lortu duenaren aurkako borrokan langileak batzen dituen antolatutako erakunde bat da. Negoziazio kolektiboaren aurrean, patronalak langileak zatitzeko borrokatzen du, askotan beldurraren taktika erabiliz. Horri aurre egiteko, ezinbestekoak dira kolektiboa eta elkartasuna".

"Ezinbestekoa da jendearekin lan egitea. Lan horren barruan, bi ardatz azpimarratuko nituzte. Batetik, afiliazioa funtsezkoa da, horiek direlako negoziazio bati aurre egiteko sindikatu batek duen indarrik nagusienetakoa; bestetik, enpresa bakoitzean delegatuen lana dago, eta delegatuen lana langile guztiekin. Denok gara sindikatua, baina delegatuak sindikatuaren ahotsak dira enpresetan. Gainera, idazkaritzaren ordezkariaren lana dinamizatzaile bezala ere funtsezkoa da. Izan ere, horiek dira negoziazio kolektiboaren eragile dinamizatzaileak arlo guztietan atal sindikalekin".

### ● ELAren eredu aldarrrikatzailea

"Egungo egoera ekonomikoa kontutan hartu behar da. Hamaikagarren urtez jarraian, hazkunde ekonomikoak jarraitzen du, irabaziak handitzen jarraitzen dute. Baina, hala ere, bataz-besteko soldaten igoera inflazioaren azpitik daude, eta lan baldintzak okertzen doaz".

"Egungo egoera ekonomia aztertuta, aldarrikatzeko tartea badagoela uste dugu. Aberastasunen banaketan justuago bat egiteko modua badago. Sindikatuaren lana, negoziazio kolektiboaren bidez banaketa justuago baten eztabaida ahalbidetzea da".

### ● Edukien garrantzia

"ELAren ustez, negoziazio kolektiboa lan sindikalaren oinarrizko elementua da, elkarrizketa soziala deitzen duten horren kontrajartze bezala. Beraz, ELAren ustez ezinbestekoa da negoziazio kolektiboa ondo prestatzea prekarietatearekin amaituko duten oinarrizko elementu horien aldarrikapen bezala":

"Bosgarren urtez jarraian, UGTk eta CCOOk akordioa lortu dute Madrilen CEOErekin. Bertan Kontsumorako Prezioen Indizearen aipamena egiten da soilik soldatak igotzeko orduan. Horrek ez du balio langileen lan baldintzak hobetzeko, ezta aberastasunaren banaketa lortzeko ere. Uko egiten zaio mobilizazioari, eta patronala pozik dago, ez direlako berari interesatzen ez zaizkion gaiak ukitu ere egiten".

### ● Patronalaren posizioa, arlo publiko zein pribatuan

"Patronalak, publikoak zein pribatuak, ez du negoziatu nahi. Beraien erabakiak estretegikotzat jotzen dituzte, eta ez dute nahi horien inguruan hitz egin nahi. Esaterako, administrazio publikoak ahal duen guztia azpikontratatzen du, erabaki ideologiko bezala. Eta, gainera, uko egiten dio azpikontratutako langile horien lan baldintzen hobekuntzaz hitz egiteari. Horren adibide dira, Erandioko segurtasuna, Tuterako lorezainak, Donostia, Errenteria eta Irungo TAOko langileak eta Irungo garbitzaileak daude, besteak beste. Hor, funtsezko gai bezala, subrogazioa sartzen dugu. Subrogazia erregulatzea exigitzen dugu, azpikontratatutako langileek egonkortasuna lortzeko ezinbesteko tresna bezela, beste lan baldintza batzuk hobeto. Hori da lan baldintza hobeak eskatzeko aukera ematen dizun oinarrizko elementua".

### ● Hitzarmen kolektiboaren anbitoak

"Gauza bat da negoziazio kolektiboa eta beste bat patronalak nahi duena sinatzea. ELA negoziazio kolektiboaren esparru guztietan dago. Eta, nahi ditugun edukiak esparru horietan dugun indarraren araberakoak izango dira. ELA esparru guztietan egiten ari da lan, bai sektoreetako esparru guztietan zein enpresaren esparru guztietan. Baina guk gauza bat argi daukagu. Edo prekarietatea enpresan diskutitzen da, jakinda zertaz ari zaren hitz egiten, edo ez da inon eztabaidatzen. Eta, edo enpresetan zaude eraginkorra izateko aukerekin, edo ez zaude ez enpresan ez sektorean. Esaterako, sindikalgintzaren esparrutik, Bizkaiko merkataritzan gertatu dena oso interesgarria da. Historikoki lozorroan egon diren sektoreak euren dinamika propioak mantentzearen kontzientzia hartu dute. Eta, hori baloratu egin behar dugu. Sektore bakoitzari, enpresa bakoitzari, ekintza sindikalerako dinamikak eman behar zaizkio, patronalarekin eztabaidatu dezan errespetatua izanda. Mugimendu sindikalaren erronka hori da; nola landu jendearekin hori posible izan dadin".



*Adolfo Muñoz*

> *"La negociación colectiva, o es acción sindical o no es nada. Abordar los contenidos que queremos requiere una preparación de la negociación muy rigurosa"*
>
> *"La patronal califica de estratégico todo aquello que preocupa a nuestra gente: temporalidad, subcontratación, discriminación, y se niega a hablar de ello. Abordar esos contenidos requiere tener relación de fuerzas"*
>
> *"El 'diálogo social' sólo sirve para dar covertura a las posiciones patronales. No es una referencia válida para abordar la lucha contra la precariedad"*
>
> *"Nuestro reto es buscar ámbitos en los que podamos llevar adelante los contenidos reivindicativos. Y eso se hace teniendo como referente siempre a la gente, con la que tenemos que trabajar "*

## Xabier Exposito, irakaskuntza pubikoko arduraduna

# ESKOLA PUBLIKOA INDARTUZ

### MEJORES CONDICIONES LABORALES PARA FORTALECER LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

ELA EUSKAL SINDIKATUA — STEE-EILAS

Los centros escolares públicos de la CAV y quienes en ellos trabajamos venimos sufriendo los efectos de la progresiva desidia por parte de la administración, de la falta de una política educativa de carácter social y del constante recorte presupuestario, lo que ha provocado un déficit acumulado de recursos humanos y materiales que sitúan a la Escuela Pública Vasca en una coyuntura cada vez peor.

Guiados por el manual neoliberal, el Departamento de Educación, y el Gobierno Vasco en su conjunto, ha convertido la congelación de plantillas y los constantes recortes presupuestarios en auténticos dogmas de fe. Dogmas que impiden a los centros y al profesorado abordar debidamente los nuevos retos y funciones que se les plantea y dar respuesta a las nuevas necesidades que la sociedad les demanda (tutoría, orientación, atención más personalizada, necesidades educativas especiales, refuerzos educativos, integración del alumnado inmigrante,...).

Cuestiones éstas que, a día de hoy, recáen sistemáticamente en un profesorado que asume cada vez más tareas y que se encuentra hastiado por el abandono de los responsables educativos.
Responsables que esperan, simplemente, que el voluntarismo personal supla la carencia de inversiones y recursos.

Todas estas deficiencias han sido sobradamente denunciadas por los sindicatos del profesorado, las organizaciones representativas de las madres y los padres, el Consejo Escolar de Euskadi y el Ararteko.

Y siendo así las cosas en la Escuela Pública Vasca, el nuevo Departamento de Educación pretende abordar la negociación de



un nuevo acuerdo sobre condiciones laborales en el ámbito de la Mesa Sectorial.

Desde luego, necesitamos, y así lo venimos reclamando desde hace meses, un acuerdo. Pero no cualquier acuerdo. Necesitamos un amplio acuerdo que tenga en cuenta y dé respuesta efectiva a los problemas de fondo que se producen en la realidad cotidiana de los centros y en las condiciones de trabajo del profesorado.

Porque, en definitiva, unas adecuadas condiciones materiales y de recursos de los centros (en lo que hace a matrículas, ratios, grupos, necesidades específicas del alumnado, etc ...), y unas condiciones sociolaborales satisfactorias para el profesorado son inseparables, pues todas ellas inciden en la situación objetiva en la que el profesorado desempeña su labor diaria.

Las soluciones no nos van a llegar ni gracias al flaco favor que nos hacen los acuerdos parcos en resultados que algunos sindicatos firman con el MEC (invalidando, de paso, los marcos competenciales y nuestros más amplios acuerdos sectoriales), ni de la pasividad o la sufrida resignación del profesorado afectado.

Y es por todo ello que **STEE-EILAS** y **ELA** reclaman la atención y movilización del conjunto del profesorado vasco con el objetivo de exigir un sustancial aumento en la consideración política y presupuestaria de la Escuela Pública Vasca que haga realmente efectiva la necesaria mejora de las propias condiciones laborales a negociar en el marco de la Mesa Sectorial. Ambas reivindicaciones se funden, por tanto, en una que se concreta en los siguientes puntos:

**ELA eta STEE-EILAS sindikatuek euskal eskola publikoa indartzeko abian jarri duten kanpaina aurkeztu zuten iragan urtarrilaren 17an, Bilbon. Kanpainaren helburua lan baldintzak hobetuz euskal eskola publikoa indartzea da.**

**-Nola dago irakaskuntza publikoa EAEn?**

-Eskola publikoek eta bertan lanean ari garenok administrazioaren utzikeriaren ondorioak pairatzen ari gara aspaldian. Izaera sozialeko hezkuntza-politikarik ez dago eta aurrekontuetan murrizketak gertatzen dira. Hezkuntzako arduradunen hitzak bestelakoak izan arren, hezkuntzara zuzendutako BPGren portzentaia gero eta murritzagoa da urterik urte. Honek oztopatu egiten du ikastetxe publikoek era egokian aurre egitea sortzen ari diren behar berriei eta eragin guztiz kaltegarria dauka gure lan baldintzetan ere.

Gauzak honela, ikastetxe eta irakasleok nekez egin diezaiekegu aurre gizarteak eskatzen digun erronka eta egінkizun berriei. Egunetik egunera gero eta ugariagoak dira gure lanak eta betebeharrak, gero eta ugariagoak dira batere konpentsaziorik gabe gure gain hartu behar ditugun egіnkizunak. Honi guztiari hezkuntza arduradunen utzikeria erasten badiogu, ez da harritzekoa asperdura nagusitzea. Ematen duenez, irakasleen boluntarismoa inbertsioen eta baliabideen gabezia gainditzeko nahikoa izango dela uste du administrazioak.

**-Egoerari aurre egiteko bilerarik egon al da?**

-Egia da irakaskuntza publikoak dituen gabeziak urterik urte pilatu egin direla, baina administrazioaren utzikeriagatik arazoak bere horretan jarraitzen dute. Aipagarria da, langileen behin-behinekotasuna eta prekarietatea ez dela murriztu urteotan, arazo honi erantzuteko balio beharko lukeen hitzarmena berritu gabe dugun bitartean. Gaur egun ia 21.000 irakasle ditu sare publikoak, baina horietatik 16.000 ez dira finkoak eta horrek eragin zuzen-zunena dauka hezkuntzaren kalitatean.

STEE-EILAS eta ELA sinetsita gaude ezinbestekoak direla, Euskal Eskola Publikoaren geroa bermatzeko, besteak beste, milaka irakaslek pairatzen duten tenporaltasuna eta behin behinekotasuna murriztea; plantillak egonkortzea, berritzea eta gaztetzea; lan baldintzak hobetzea; hezkuntza sistema publikoa sendotzea, euskal eskola publikoaren hezkuntza eskaintza zabalduz eta sakonduz; ikastetxeen kudeaketa demokratikoa bermatzea eta zuzendaritza egіnkizunak indartzea; hezkuntza sistema publikoaren hizkuntza normalkuntzan urrats gehiago ematea; azken finean, irakasle lana defendatu eta duindu behar da.

**-Irakasleen zeregina askoren ahotan dabil.**

-Urterik urte, gizarteak gero eta arazo gehiago jartzen ditu eskolaren gainean eta gero eta gauza gehiago eskatzen dizkio irakasleari. Gainera, gatazka-egoeratan irakasleriak ez du hezkuntza arduradunen babesik jasotzen. Egoera honen aurrean, eta aspaldi honetan behin baino gehiagotan zalantzan jarri den duintasun profesionala berreskuratzeko ezinbestekoa da hezkuntza arduradunen jarrera aldaketa. Era honetan, laguntza eta babes juridikoaz gain, beharrezkoa deritzogu hezkuntza-sistemak bere aurrean dituen erronkei aurre egin ahal izateko, etengabeko prestakuntza planak garatzea.

## Euskal Herriko Laborantza Ganbara celebró su primer aniversario en Ainhize-Monjolose

# "QUE NOS DEJEN TRABAJAR EN PAZ"

**Más de 500 personas se reunieron el 14 de enero en Ainhize-Monjolose (Baja Navarra) para celebrar el primer aniversario de Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG). Electos, representantes de los sindicatos, partidos y asociaciones más diversos, acudieron, junto con los agricultores, a expresar su apoyo a este proyecto que es blanco de ataques y presiones cada vez más frecuentes por parte del Estado y de su representante local, el Prefecto del departamento de Pirineos Atlánticos.**

Estos ataques constituyeron el núcleo de parte de las intervenciones de la jornada. El presidente de EHLG Michel Berocohirigoin pidió al Estado que "deje trabajar en paz a Laborantza Ganbara". Su discurso, muy aplaudido, expresaba la firme y serena voluntad de continuar hasta el final la lucha emprendida el 15 de enero de 2005.

Berocohirigoin subrayó igualmente la negativa a renunciar al nombre de Laborantza Ganbara (algo que había exigido expresamente el Estado, bajo pena de ilegalización de la estructura) explicando que el nombre es precisamente la punta del aguijón, y que, sin punta, el aguijón no permite avanzar.

El fondo del problema sigue ahí: el valor de Euskal Herriko Laborantza Ganbara se deriva del trabajo concreto que lleva a cabo sobre el terreno (en nueve meses 694 agricultores han recurrido a sus servicios), pero también del hecho de que representa la viva imagen de la ventaja de disponer de instituciones específicas en el País Vasco, frente a las de Pirineos Atlánticos, incapaces de realizar un trabajo tan adaptado a las necesidades y especificidades de iparralde.

Esta dimensión institucional de Laborantza Ganbara es lo que suscita la cólera del Estado y que ha llevado a éste a procesar a 30 municipios ante el Tribunal Administrativo por haber votado subvenciones de apoyo a EHLG. El sábado pasado los electos estaban presentes y reafirmaron su apoyo al proyecto leyendo una moción firmada por 60 alcaldes, miembros del Consejo General o Regional.

Durante el acto se hizo un balance financiero: si el presupuesto de 2005 ha podido equilibrarse, el aumento de los gastos en 2006 (pasando a 9 personas asalariadas) hace aún más indispensable el trabajo de EHLG-ren Lagunak. El año pasado, las donaciones de personas de Iparralde se elevaron a 140.000 euros, lo que es destacable en relación a lo que se recoge habitualmente en campañas de apoyo en Iparralde.

El objetivo es doblar esta aportación en el curso del año que viene, y compensar, mediante una ayuda aún mayor de Hegoalde, el bloqueo total de subvenciones por parte del Estado francés.

**IMPLICACIÓN DE ELA**

Las delegaciones de ELA (encabezada por el secretario general José Elorrieta) y de la Fundación Manu Robles-Arangiz presentes durante esta jornada fueron particularmente aplaudidas después de que los dirigentes de EHLG subrayaran hasta qué punto la puesta a disposición del edificio de Ainhize-Monjolose era una ayuda preciosa para el buen desarrollo del proyecto.

Tras la reunión, una comida reunió a 300 personas y siguió una pequeña fiesta. Así terminaba una jornada que habrá sido vivida por todos como un importante




éxito y que destacó por la diversidad sociopolítica de las personas que asistieron: agricultores y no agricultores, de generaciones diferentes, sensibilidades desde la derecha centralista hasta la abertzale, todo el abanico político, pasando por el Partido Socialista y los Verdes. Este aniversario exitoso refleja bien la lucha de todo un pueblo frente a un estado que persiste en su negativa a reconocerlo.

***Jean-Noël Etcheverry. Responsable de la Fundación Manu Robles Arangiz en Iparralde***



*Los trabajadores y trabajadoras del servicio de jardinería de Tudela están realizando numerosas y originales movilizaciones, como el 'funeral' del servicio de parques y jardines.*

# Iñaki Irisarri, responsable de ELA en Tudela

## "EL AYUNTAMIENTO VA A TENER QUE DAR LA CARA GRACIAS A LAS MOVILIZACIONES"

**Los trabajadores y trabajadoras del servicio de jardinería de Tudela llevan 63 días en huelga en lucha por un convenio que mejore sus condiones laborales. Pese a la larga duración del conflicto, la plantilla en huelga está firme y se mantiene con ganas de seguir luchando.**

**-¿Cuál es la situación 63 días despues del iniciar la huelga?**

Parece que el ayuntamiento de Tudela va a tomar por fin cartas en el asunto. Es una información que hemos podido leer en prensa y que está en boca de todos, pero no la hemos podido contrastar. Hasta ahora el ayuntamiento ha practicado la táctica del avestruz; es decir, ha escondido la cabeza y no ha querido saber nada. Sin embargo, las movilizaciones de los trabajadores/as les ha hecho moverse.

**-Las movilizaciones están siendo muy numerosas y originales. ¿Esta presión está haciendo moverse al ayuntamiento?**

Al ayuntamiento no le queda otro remedio que moverse. En todos los sitios donde hay huelga la plantean como una huelga política; en este caso lo plantean como una huelga contra UPN. Si fuera en un municipio gobernado por PNV o PSN lo plantearían como una huelga contra ellos.

Pero esta no es una huelga política; es una huelga contra sus políticas privatizadoras, que afectan a las condiciones laborales de los trabajadores/as.

*"Tuterako udalak ezin zuen beste lan gatazka bat jasan; TAOaren akordioa sinatu beste aukerarik ez dute izan"*

Si esta huelga destaca por algo es por sus numerosas movilizaciones, una huelga que está teniendo mucha repercusión en Tudela. El ayuntamiento quiere alargar la huelga, que se pudra. Pero la gente está muy fuerte. Pero, sobre todo está convencida que la vamos a ganar.

**-La semana pasada se firmó un acuerdo de los trabajadores/as de la OTA . ¿Por qué este acuerdo no se puede lograr para los jardineros?**

Los trabajadores/as de la OTA recogen el fruto de su larga lucha de hace tres años, y la huelga de los jardineros. El ayuntamiento no podía aguantar otro conflicto laboral, otra batalla. Hemos planteado batalla en un sector, y hemos recogido los frutos en otro. Pero, sobre todo, nos deja una lección: si planteas conflicto logras acuerdos con contenidos. El convenio, para tres años, es muy positivo: subidas salariales del 37,7%, reducción de la jornada laboral en 32 horas anuales, complementos de bajas del 100%, lograr que el 100% da la plantilla sea fija...

## Labur Breves...

### ● El parlamento europeo rechaza la directiva sobre puertos

La federación de Hainbat de ELA ha mostrado su satisfacción por el resultado de la votación celebrada el pasado día 18 de enero en el Parlamento Europeo, por la que se rechaza la directiva sobre los servicios portuarios, que afectaría negativamente a los puertos europeos, incluídos los de Bilbao y Pasajes. Para ELA, las movilizaciones que en los últimos meses han protagonizado los trabajadores/as portuarios han sido determinantes a la hora de tomar esta.decisión.

Esta Directiva hubiese tenido un impacto muy negativo sobre el sector, al desregular totalmente la actual normativa de trabajos y servicios portuarios e implantar la autoasistencia en las labores de carga y descarga por las tripulaciones de los buques, lo que supondría la perdida de un importante número de puestos de trabajo, además de un incremento de accidentes laborales.

### ● ELA gana en Ercoreca

ELA ha sido el sindicato más votado en las elecciones sindicales celebradas en los diferentes centros que supermercados Ercoreca tiene en Bizkaia, a pesar de la presión que los días previos ha venido ejerciendo la dirección contra la candidatura de este sindicato. Con una participación cercana al 95%, ELA ha obtenido 200 votos de una plantilla de 593 empleados y empleadas, lo que le permite sumar siete representantes. La candidatura independiente ha sumado también siete delegados y delegadas, con menor número de votos. Por su parte, UGT, CCOO y LAB han logrado un representante cada uno.

**www.ela-sindikatua.org**

### ● Frantziako 2005eko azaroaren zergatiak

Manu Robles-Arangiz fundazioak Gai Monografikoak saileko 25. alea argitaratu du, *Frantzia sutan - El noviembre francés - Banlieues : Le modèle français en question ?*. Prentsan argitaratutako artikulu eta elkarrizketa bilduaz iragan urteko azaroan Frantzian izandako erreboltak aztertzen ditu.

### ● Por el empleo en las Encartaciones

**Los comités de empresa de las plantas de Virtisú y Pastguren protagonizaron la semana pasada un encierro de 24 horas en el antiguo ayuntamiento de Zalla, para exigir que se retire la amenaza de traslado de la producción de Virtisú a una planta situada en Barcelona y se adopten las medidas necesarias para el mantenimiento del proyecto inicial de papelera integrada, que en su día recibió importantes subvenciones y ayudas por parte del Gobierno Vasco, la Diputación de Bizkaia y ayuntamientos de las Encartaciones.**

**Los comités de empresa realizaron un llamamiento a participar en la manifestació que en defensa del empleo en la comarca se va a celebrar el próximo día 28 de enero, sábado, en Zalla.**




**Franqueo concertado**
**nº 08/207**

ELA astekaria
Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
www.ela-sindikatua.org